



Hau da aste honetako euskararen pilula!

“Allanamiento procesal” euskaraz, nola?

Allanamiento procesal > amore emate procesal

Gaztelaniaz, **allanamiento del proceso** ere esaten da, eta euskaraz **prozesuari amore emate** forma ere badugu.

Horrela definitu zen, 2015eko Prozedura Zibila Hiztegian:

Demandatua demandatzailearen eskaerarekin bat datorrela adierazten duen egintza procesala. Arrazoi materialetan oinarrituta, prozesua modu ezohikoan bukatzeko moduetako bat da. Kondena-epai bidez adierazten da, eta gauza epaituaren efektua du.

ADIBIDE BATZUK

- “Al efecto del intento de arreglo o transacción, cuando las partes no concurrieren personalmente sino a través de su procurador, habrán de otorgar a éste poder para renunciar, **allanarse** o transigir.” > “Konponketa-edo transakzio-ahaleginaren ondorerako, alderdiek, pertsonalki barik beren prokuradorearen bidez agertzen direnean, ahalordea eman beharko diote uko egiteko, **amore emate**ko edo transakzioa egiteko.”
- “La falta de contestación se considerará **allanamiento** a la demanda” > “**Amore emate**tzat joko da demandari ez erantzutea”
- “La declaración de rebeldía no será considerada como **allanamiento** ni como admisión de los hechos de la demanda, salvo los casos en que la ley expresamente disponga lo contrario” > “Auzi-ihesaren deklarazioa ez da hartuko **amore-emate**tzat, ez eta demandako egitateen onarpenzat ere, legeak espresuki aurkakoa xedatzen duen kasuetan izan ezik”

ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)